

# KULTURKRIKA


» LIBURUA

## Libertatia zeinen eder den



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



### Urtemuga lehorraren kronika

ITXARO BORDA

Maiatz, 1989

Nobedade ez diren liburuak iruzkintzeko 2010ean hartu nuen tarte honetan, bazen inon idatzi gabeko lege bat: autorerik ez errepikatzea. Betetzea gero eta zailagoa zaidan lege bat, aipamena merezi dutenak ez baitira agorrezinak, eta hainbeste maite ditut idazle gutxi batzuk. Nire deskarguan esango dut Itxaro Borda apailatzaile gisa ekarri nuela soilik, *Emakumeak idazle* antologiaren karietara. Injustizia bat konpontze-  
ra nator, beraz, Borda behingoz autore gisa ekarrita. Eta etorkizunerako atea uzten dut irekita, behin hemen sartu diren idazleak berriz gonbidatu ahal izateko.

Zer liburu aukeratu, ordea, zerrenda luze batetik. Bada, urte askoan, Meettok argitale-txeak 100% Basque atera arte, gaztelaniara itzultitako liburu bakarra, 1989. *Allegro ma non troppo*, Hiru argitaletxe mitikoan agertu zena, euskarazko narratiba lanak gaztelaniaz ematen zituen Milia Lasturko sail gogoangarrian (inor gutxik jarraitu duen ekimena, *Pamiela* eta *Diario de Noticias* egunkariak abiatu zutena salbu, nahi baino oihartzun txikiagoarekin). Literaturaren zubitegian, ez narrazio, ez nobela, kronikaren atalean kokatu dute, ale bakar, izenburuak aitortu bezala, nahiz azken orrialdean “nobela bitxi honetan” aipatzen den. Kronika edo nobela bitxi, narrazio labur, gogoeta, elkarrizketa, elkarrizketaz mozorroturiko bakarriketak biltzen ditu, umore pindarrez, melodramatiko, gorabeheratsu, *brilliant* batzuetan, afruskeriaren mugetan besteetan. Borda bere osotasunean.

Baina esan dezagun kronika, ados. Zerena, ordea. Bada, 1989. urtearena, iraultza fama-

tuaren urtemuga, berrehungarrena: bero garaia, euririk ez, artoak galbidean, ETA eta espainol gobernuaren arteko negoziaketak berriz abiatzen ziren, “feministen mugimendua osoki integratua, eta halatan desbalorizatua dela”, eta “Frantziak, derrigorrezko azimilazioneaz beste aterabiderik ez du proposatzen”. Behar baino gehiago laburtuz, azalduko zaigu 1789az geroz Frantziak nola “aztertu, analisatu, kuadratu, normal-normaltu, erreboluzionearen baloreetara plegatu” dituen euskaldunak, “astoaren, irrigin arazlearen, itsuki langilearen, ridikuloki fededunaren” arrastoan sartzeraino.

Irakurri bitartean topatuko dituzu hizki dantzariak, koma auskalo non jarriak, supituki agertzen diren gidoitxoak, akats ortografikoak, ahaztutako maiuskulak, desgerturiko letrak. Pixka batean tremendista jarriko da tarteka –“historian ez dago lekurik guretako, non ez den bentzutuen orrialde odolez kolorestatuetan”–, Godwin legea aplikatzeraino –“Zein da gizarte merdiko hau, populu baten aurkako soluzio finala, bakean, onartzen duena?”–. Baina libertatia zeinen eder den, beste behin ere, Bordaren eskue-tan aske dabilenean. ■

Itxaro Borda  
(Baiona, 1959)  
*‘Maiatz’ literatur  
aldizkariaren  
sortzaileetako  
bat da.*

